

Zangoza / 2021

KULTUR AGENDA

urria



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



GAZTE DE KULTURA
PALACIO DE LAS ARTES
VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

Kultura-zerbitzuaren arreta ordutegia: Astelehenetan 09.30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretotako Ordutegia: asteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara. eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es.

Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea www.sanguesa.es web-orrian kontsultatu.

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Karmengo Entzunaretoa

33/2021 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera, Auditorioaren edukiera % 75ekoa da eta jendea elkarren ondoan eseri ahal da eserlekuetan.

Aldez aurreko salmenta: Urriaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Tfnoa:** 948 870 251.

Nora abesbatzaren emanaldirako Udalak sarrerren % 25 gordeko ditu Kultura-etxean aurrez aurreko salmentarako.

Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 19:00etatik 19:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako.

Bertsolarien Txapelketarako, Karmengo Entzunaretoko leihatila 16:30etik 17:00etara egonen da zabalik (sarrerak geratuz gero). **Argibide tfnoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehieneko kopurua laukoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko. Ikuskikunaren etena sarrerren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela erakutsi beharko da entzunaretoan sartu ahal izateko.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA


Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofona erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatutik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoa edo deitu 948 870 251 telefonora.

Covid19 dela kausa, Zangozako Udalak Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean eta Karmengo Entzunaretoan beharrezko neurriak ezarri ditu. Kontsulta ditzakezu www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web guneetan.


Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



1 Os	Erakusketa. "Karlos, Vianako Printzea (1421-1461)" (urriaren 12a bitarte)	4. orr.
2 La		
3 Ig	Familia antzerkia. "Ilargiaren atzean"	5. orr.
4 Al		
5 As		
6 Az		
7 Og	Cineforum. "A la caza de los ñumanos"	12. orr.
8 Os		
9 La	Antzerkia. "Imbécil (Midiendo las palabras)"	5. orr.
10 Ig	Txango ornitologiko gidatua Nafarroako Bertsolarien Txapelketa 2021	12. orr. 9. orr.
11 Al		
12 As		
13 Az	Ipuin-kontalaria. "Cuentos tranquilizantes" (gaztelaniaz)	7. orr.
14 Og		
15 Os	Erakusketa. "La magia del títere" (azaroaren 1a bitarte) Haur-dantzako tailerra (I) (ekainaren 10a bitarte) Haur-dantzako tailerra (II) (ekainaren 10a bitarte)	4. orr. 11. orr. 11. orr.
16 La	Musika, dantza eta margoketa. "Monet y Debussy. Reflejos en el agua"	6. orr.
17 Ig	Musika. Nora Abesbatza	9. orr.
18 Al		
19 As	Ipuin-kontalaria. "My best friend" (ingelesez)	7. orr.
20 Az	Paperezko antzerkitxoak egiteko tailerra	10. orr.
21 Og		
22 Os		
23 La	Antzerkia. "Rámper, vida y muerte de un payaso"	6. orr.
24 Ig	Zinema. "Tom y Jerry" Musika. Zangozako Gaiteroak	8. orr. 9. orr.
25 Al		
26 As	Txotxongilo antzerkia. "El caballero Grifo-roto"	8. orr.
27 Az	Ipuin-kontalaria. "Udako esamesak" (euskara)	7. orr.
28 Og		
29 Os		
30 La		
31 Ig		

Azaleko irudia: "Imbécil (Midiendo las palabras)". Álex O'dogherty.

Erakusketak



“KARLOS, VIANAKO PRINTZEA (1421-1461)”

URRIAREN 12A BITARTE

Erakusketak Karlosen jaiotzaren VI. mendeurrena ospatzen du: 1421eko maiatzaren 29a Peñafielen. Nafarroako Zuria eta Aragoiko Juanen seme eta Nafarroako Karlos III. Noblearen bilobaren omenez. Hamar panelen bidez, Karlos Vianako Printzearen bizitzako mugarri nagusien ibilbidea eskaintzen da, bere irudiaren konplexutasuna eta bizitza egokitu zitzaion garai nahasiak ulertzen laguntzen duena.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.



“LA MAGIA DEL TÍTERE”

Humo Kolektiboaren 30. urteurrena

URRIAREN 15ETIK AZAROAREN 1ERA

“La Magia del Títere” lanak Humo Kolektiboaren mundo berezia erakusten du, guztiz artisau-eran ekoiztako pertsonaia, instalazio eta antzoki txiki batzuen bidez. Irudimenez beteriko hainbat istorio erakutsiko dizkigu, estetika finarekin, arras ederra eta ironiaz betetako zertzelada txikiekin. Poesia-kutsuarekin, bere lanek, beti ludikoak, balio positiboak transmititzen dituzte, haur eta helduak dibertitzeko helburu nagusiarekin.

Humo Kolektiboaren 30 urteko ibilbidea gogoratuko digu lan honek, atzera begirako erakusketa honen bitartez, Tuterako antzerki konpainiaren txotxongilo eta eszenografiarik onenetariko batzuekin.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.



Erakusketa Aretoko ordutegia: Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



FAMILIA ANTZERKIA

Nafarroako Antzoki Sarearen Zirkuitua
"Ilargiaren atzean"

MALASPULGAS ANTZERKI KONPAINIA

IGANDEAN, URRIAK 3

Antzerkilariak: Monika Torre, Izaskun Mujika, Sofía Díez, Patrizia Eneritz.

Ilazki 9 urteko neskatoa da eta bere ama Grazianarekin bizi da, hitzen sorgina. Auzokoek kontatzen dizkioten istorioak korapilatuz, artilezko atorrak, galtzerdiak... ehuntzen ditu. Bere pasioa egurra lantzea da. Urtero, Donibane gauean, desio bera eskatzen du. Ahizpa bat eduki nahiko luke denbora pasatzeko eta elkarrekin jolasteko.

Ikusleak: 5 urtetik gorakoak. Haurrak eta sendiak.


Iraupena: 55 minutu. **Ordua:** 18:00.

Aldez aurreko salmenta: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS).

Diruz laguntzen duena: Nafarroako Gobernua.



BAKARRIZKETA

"Imbécil (Midiendo las Palabras)"

ÁLEX O'DOGHERTY

LARUNBATEAN, URRIAK 9

Alex O 'Dogherty ez da ematen duena. Askoz hobea da. "Imbécil" da bere azken ikuskizuna. Hitz, hitz txiki eta biraoen munduari buruzko show sailkaezina. Hitzak erabiltzen ditugunok dugun botereari buruzko hausnarketa. Hitzak neurtzeaz nazkatuta bazaude, hau zure ikuskizuna da.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 110 minutu.

Ordua: 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 8 €

Txartel-leihatilan: 10 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



MUSIKA, DANTZA ETA MARGOKETA

"Monet y Debussy. Reflejos en el agua"

LARUNBATEAN, URRIAK 16

Interpretatzaileak: Alicia Griffiths, harpa"; Andrés Beraza, dantza eta koreografia; Agurtzane Pérez," dantza eta koreografia; Ekhi Ocaña, flauta,jatorrizko ideia eta zuzendaritza.

Musika, dantza eta pintura batzen dituen diziplina arteko ikuskizun honek Claude Debussyren musika-lanaren eta Claude Monetren pinturaren arteko harreman sotila du oinarri. Inpresionismoa hondo gisa, eta edertasunaren bilaketa motor gisa. Harpa, flauta eta dantza, digitalki animatutako Monetren margolanen proiektzioekin elkartzen dira. Argumentua, C. Debussyren musikarekin, Monet zahar baten azken urteetan inspiratzen da, ia itsu, bere ur lorategira erretiratzen dena edertasunaren bila.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 65 minutu. **Ordua:** 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 6 €. **Txartel-leihatilan:** 8 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS)
Elkartea eta Nafarroako Gobernua.



ANTZERKIA

"Rámper, vida y muerte de un payaso"

CANCAMISA TEATRO

LARUNBATEAN, URRIAK 23

Antzerkilaria: Juan Paños.

Testua eta Zuzendaritza: Imanol Ituiño.

Umorearen ahaztutako jeinu baten istorioa hurbiltzen duen bakarriketa, emozioz eta samurtasunez beteriko lan bat, zati berdinetan dibertitu eta liluratzen duena.

Rámper, Ramón Álvarez Escudero, 20 eta 30eko hamarkadetako pailazorik ospetsuena izan zen.

Akrobata, musikari, parodia-idazlea eta umorista paregabea zen. Bere aurpegiarekin marrazki bizidun bat zuen, bere ahotsarekin grabatutako diskoak, pelikula bat eta anis botilak bere izenarekin. Baina Gerra Zibila etorri zen, eta nahiz eta berak lanean jarraitu, deus ez zen berriro gauza bera izan.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 70 minutu. **Ordua:** 20:00.

Aldez aurreko salmenta: 6 €. **Txartel-leihatilan:** 8 €.

Gazte Txartelarekin: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS)
Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

Ipuin-kontalaria



“CUENTOS TRANQUILIZANTES”

(Gaztelaniazko ipuin-kontalaria)
SERGIO DE ANDRÉS

ASTEAZKENEAN, URRIAK 13

Lasai! On egingen dizueten istorioez beteta natorkizue eta. Prest al zaudete?

“MY BEST FRIEND”

(Ingelesezkotako ipuin-kontalaria)
VIRGINIA MORIONES

ASTEARTEAN, URRIAK 19

Keyra Kayleren lagunik minena da, baina egun batean beste hiri batera joan behar da bizitzera eta Keyra haren bila joanen da.



“UDAKO ESAMESAK”

(Euskarazko ipuin-kontalaria)
AINHOA RUIZ

ASTEAZKENEAN, URRIAK 27

Badatorrela lasterka, hegan... Clotilde, bere txutxumutxuekin, bere istorio eta jolasekin. Hobe duzu entzutera geratu edo zutaz hitz egingo du!



Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Ordua: 18:30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerak ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. Gonbidapenak **urriaren 1etik aurrera** hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea ipuin-kontalaria hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Zinema



“TOM Y JERRY”

IGANDEAN, URRIAK 24

Tom eta Jerry, animazioaren historiako katu eta sagu ezagunenak, berriz elkartzen dira. Jerryk New Yorkeko hotel batean eman du izena ezkontza garrantzitsu baten egunean. Jabeak Tom kontratatu behar du Jerryz libratzeko. Bere lehia hasten da eta katuaren eta saguaren jokoak hotelaren egonkortasuna eta ezkontza mehatxatzen ditu.

Ikusle guztiendako: 9 urtetik beherakoek helduekin joan behar dute.

Iraupena: 101 minutu. **Ordua:** 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera: 3 €.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Txotxongilo antzerkia



“EL CABALLERO GRIFO-ROTO”

COLECTIVO HUMO

ASTEARTEAN, URRIAK 26

Carmelak, Joaquin herensugeak eta aitonak egiaztatzen dute batzuetan besteek kontatzen digutena ez dela egia, eta gatazkak hobeki konpontzen direla hitzarekin ezpatarekin baino.

Ikusleak: Haurrak eta familiak 5 urtetik aurrera. Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Ordua: 18:30. **Iraupena:** 55 minutu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako eta saioko. Sarrerek ez daude zenbakituta. Ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapena erakutsi beharko duzu sartu ahal izateko. Ekitaldia behin hasita, ezin izanen da sartu. **Gonbidapenak urriaren 1etik aurrera** hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara. 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea txotxongilo antzerkia hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Nafarroako Bertsolarien Txapelketa 2021 Zangozan



NAFARROAKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA 2021. HIRUGARREN FINAL-LAUDENA.

Nafarroako Bertsolarien Txapelketa Nafarroako Bertsozale Elkartearen erreferentziatzko jarduera da, eta helburu du Nafarroako bertsolaritza sustatzea eta zabaltzea, gure erkidegoan kultura-intereseko ondasuna baita, 2018. urteaz geroztik. Bi urtean behin ospatzen da eta oraingo honetan 45. edizioa beteko du txapelketak.

IGANDEAN, URRIAK 10

Bertsolariak: Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria, Mikel Lasarte Cia, Oier Lakuntza Irigoien.

Gai-jartzailea: Zigor Gartzia Arregi "Zian".

Ordua: 17:30.

Lekua: Zangozako Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: Arrunta: 7 €. Bertsozale Elkarteko bazkideak: 5 €. 7-16 urte bitartekoak: 4 €.

Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea.

Nora Abesbatza eta Zangozako Gaiteroak



KONTZERTUA

NORA ABESBATZA

IGANDEAN, URRIAK 17

Ordua: 20:00. **Iraupena:** 60 minutu.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 4na sarrera pertsonako. Sarrerak **urriaren 1etik aurrera** hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta eta 19:00etatik 21:00etara, eta internetetik www.sanguesacultura.es edo www.sanguesa.es web-orrietan. Tfnoa: 948 870 251.

Antolatzailea: Zangozako Nora Abesbatza.

GAITA MUSIKA

IGANDEAN, URRIAK 24

Jarduera ibiltaria hiriko karrika eta plazetan, Zangozako Gaiteroen eskutik. Kalejirak, jotak, 2x4 errigodoiak eta zortzikoak joko dituzte, besteak beste.

Ordua: 11:00.

Iraupena: 50 minutu.

Antolatzaileak: Zangozako Gaiteroak.



Tailerrak



PAPEREZKO ANTZERKITXOAK

ASTEAZKENEAN, URRIAK 20,

Antzerkitxo bat egitea bere pertsonaia eta eszenografiekin, partaideek ekarriko duten zapata kaxa batekin.

Imparte: Manuel Aliaga de Colectivo Humo.

Adinak: 6 urtetik aurrera. Adingabeek helduekin joan bejar dute.

Ordutegia: 18:30etik 20:00etara.

Gutxienezko ikasle kopurua: 5.

Gehienezko ikasle kopurua: 16.

Sarrera: Doan edukiera bete artean.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: Urriaren 1etik 19ra Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Atea tailerra hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



ANTZERKI TAILERRA

Interpretaziora hurbiltzea antzerki-jolasen bidez. Antzerki sormenaren prozesua ezagutuko duzu. Gorputz-adierazpena, mugimendua eta begirada landuko dira, pertsonaiak eta istorioak asmatzeko. Tailerrari amaiera emanen zaio partaideen antzezlan batekin Munduko Antzerkiaren Eguna ospatzeko. Anima zaitez!

Proiektu hau Nafarroako Antzoki Sareak antolatuta eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa Fundazioaren laguntzarekin bultzatutako "Salto a escena-Oholtzara Salto" proiektuaren parte da. Arte eszenikoak gazteei hurbildu eta protagonista bihurtu nahi dituen ekimena.

Zuzendaritza: Quiero Teatro.

Adinak: 11tik 18ra.

Eguna: Osteguna.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Gutxienezko ikasle kopurua: 5.

Gehienezko ikasle kopurua: 12.

Data: Urriaren 4tik 2022ko martxoaren 17ra.

Saio kopurua: 29.

Doako matrikula.

Tailerrak



Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: Urriaren 15a bitartean Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Antolatzailea: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS).

Laguntzaileak: Nafarroako Kutxa Fundazioa eta La Caixa Fundazioa.



HAURRENDAKO

SORTZE-DANTZAKO TAILERRAK

Haurrengan dantza sustatzeko ekitaldia, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014 eta 2015 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta.

Irakasleak: Fueradeleje Dantza Konpainia.

Lekua: Vallesantoro Jauregia-Kultur Etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Izen-emateak: Urriaren 13ra bitartean Kultura-etxeko Argibide Bulegoan, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara; baita 948 870 251 telefonora deituz edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Izena ematearen baldintzak: Gutxienezko ikasle kopurua lortuko ez balitz bertan behera geratuko litzateke. Eskaera toki eskaintza baino haundiagoa izango balitz eskatzaile guztien artetik zozketa bat egingo litzateke. Nork bi izen-emate egin ahal izango ditu gehienez ere. Ikastaroa Kultura-zerbitzuan ordainduko da izena emateko epea behin bukatuta eta aurreikusten den ikastaroa hasteko eguna baino lehen.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (I)

Datak: Urriaren 15etik 2022ko ekainaren 10era.

Adinak: 2014an eta 2015ean jaiotako haurrak.

Eguna: Ostirala.

Ordutegia: 17:30etik 18:30era.

Ordu kopurua: 27.

Matrikula: 54 €.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 10.

HAUR-DANTZAKO TAILERRA (II)

Datak: Urriaren 15etik 2022ko ekainaren 10era.

Adinak: 2010, 2011, 2012 eta 2013an jaiotako haurrak.

Eguna: Ostirala.

Ordutegia: 19:15etik 20:15era.

Ordu kopurua: 27.

Matrikula: 54 €.

Gutxienezko ikasle kopurua: 8.

Gehienezko ikasle kopurua: 10.

Beste zenbait ekitaldi



Txango ornitologiko gidatua Zangoza inguruan, hegaztiak identifikatzeko eta hegaztiak herritarren zientzia-plataformetan erregistratzen hasteko

IGANDEAN, URRIAK 10

Gorosti Natur Zientzien Elkartearen deialdia, Zangozako Udalarekin elkarlanean.

Topalekua: Santa María la Real ondoko aparkalekua.

Ordua: 09:30.

Antolatzailea: Gorosti Natur Zientzien Elkartea.



FAMILIA-HARRERAGATIKO ZINEFORUMA

OSTEGUNEAN, URRIAK 7

Magale-tik (Harrera Familien Nafarroako Elkartea) uste dute familia-komedia baten bidez familia-harrera zer den modu atsegin eta dibertigarrian ezagutzera eman daitekeela eta Zangoza eta Eskualdeko biztanleengana iritsi. Proiektzioaren ondoren familia harreragileekin solasaldia izanen da.

"Hunt for the Wilderpeople."

A la caza de los ñumanos"

Zuzendaria: Taika Waititi.

Ricky hamabi urteko mutiko errebelde bat da, eta ez diote harrera-etxerik aurkitzen, etxalde bat izan ezik, ezerezaren erdian, bikote batekin; emakumea xarmangarria, zakarra eta bakartia aldiz gizona. Gustura sentitzen hasten denean, ustekabeko arazo batek giza ehiza eraginen du Zeelanda Berriko soroan.

Ikusleak: 12 urtetik gorakoak.

Iraupena: 93 minutu. **Ordua:** 19:00.

Lekua: Vallesantoro Jauregia-Kultur Etxeko Hitzaldi Aretoa.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere, 2na sarrera pertsonako. Gonbidapenak **urriaren 1etik aurrera** hartu ahal izanen dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 13:00era eta eta 19:00etatik 21:00etara. 948 870 251 telefono zenbakira deituta edo emailaz infocultura@sanguesa.es helbidera. Atea proiektzioa hasi baino 15 minutu lehenago irekiko da, jendea ongi koka dadin. Proiektzioa behin hasita ezin izanen da areotan sartu.

Antolatzailea: Harrera Familien Nafarroako Elkartea.

Laguntzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Zinegotzigoa.